

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA

JAVIER MORENO. Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia.

2. ARTIKULUAK

Gipuzkoako udalen zorra: ezaugarriak eta bilakaera.

SEBASTIAN ZURUTUZA MUGIKA;
XABIER GAZTELUMENDI LOPETEGI.

Tasa eta prezio publikoen araudiaren aldaketa.

JOSE M^a ARRUABARRENA.

3. ALBISTE LABURRAK

4. ESTATISTIKAK

- ▷ Gipuzkoako ekonomiaren bilakaera.
- ▷ Foru aldundien zergabilketa likido metatua iazko aldi berekoarekin alderatuta.
- ▷ Foru Aldundien sarrera-aurrekontuak gauzatze-maila.
- ▷ 1998ko udal finantzaketarako foru fondoak.
- ▷ Udal adierazleak: zor bizia eta zorpetze maila (98-12-31ean).
- ▷ 1998ko erroldan eskubidezko biztanleak.
- ▷ .Aldundiak 1998an bildutako udal zergak: borondatezko epea.

- ▷ Aldundiak 1998an bildutako udal zergak: exekutiboa eta alta berriak..

- ▷ Aldundiak 1998an bildutako udal zergak: exekutiboa, alta berriak + borondatezko epea.

1. PRESENTACION

JAVIER MORENO. Director General de Política Fiscal y Financiera.

2. ARTICULOS

La deuda de los ayuntamientos: características y evolución.

SEBASTIAN ZURUTUZA MUGIKA;
XABIER GAZTELUMENDI LOPETEGI.

Modificación de la normativa reguladora de las tasas y precios públicos.

JOSE M^a ARRUABARRENA

3. NOTICIAS BREVES

4. ESTADISTICAS

- ▷ Evolución de la economía en Gipuzkoa
- ▷ Recaudación líquida acumulada de las Diputaciones Forales comparada con igual período del año anterior.
- ▷ Nivel de ejecución de los presupuestos de ingresos de las Diputaciones Forales.
- ▷ Fondo Foral de Financiación Municipal 1998..
- ▷ .Indicadores municipales:; deuda viva y nivel de endeudamiento (a 31-12-98).
- ▷ Población de derecho del padrón de 1998.
- ▷ Recaudación tributos locales 1998 gestionada por Diputación: periodo voluntario.
- ▷ Recaudación tributos locales 1998 gestionada por Diputación: ejecutiva y altas nuevas.
- ▷ Recaudación tributos locales 1998 gestionada por Diputación: ejecutiva, altas nuevas + periodo voluntario.

⇒ Aldundiak bildutako udal zergak:
exekutiboa, alta berriak + borondatezko
epea. 1998-1997

5. **LEGERIA**

6. **KONTSULTAK ETA EBAZPENAK**

7. **SENTENTZIAK**

8. **BIBLIOGRAFIA**

⇒ Recaudación tributos locales gestionada
por Diputación: ejecutiva, altas nuevas
+ periodo voluntario. 1998-1997

5. **LEGI SLACION**

6. **CONSULTAS Y RESOLUCIONES**

7. **SENTENCIAS**

8. **BIBLIOGRAFIA**



Javier Moreno

Zerga eta Finantza Politikako Zuzendari Nagusia
Director General de Política Fiscal y Financiera

Gipuzkoako udalen gaineko finantza tutoretza Foru Aldundiaren eskumena izanik, epe luzerako kreditu eragiketen segimendua eta tramitazioa egiteko, aldundiak eragiketa horien informazio zehatza jasotzen duen datu base bat erabiltzen du. Informazio horren zati bat, zorrari eta zama finantzarioari dagokiena hain zuzen, GIDA aldizkari honen ale berezi batean argitaratu izan da orain arte. 14. zenbaki honetan, ordea, aipatu datuak estatistiken sailean eguneraturik jasotzen dira, eta horrekin batera Gipuzkoako udalek hitzartutako kreditu eragiketen ezaugarri nagusiak eta udal horien kaudimen finantzarioa neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusien bilakaera aztertzen dira Ogasun eta Finantza Departamentuan teknikariak diren Xabier Gaztelumendi eta Sebastian Zurutuzaren eskutik. Azterketa horretan argi eta garbi jartzen da agerian, lehenik eta behin, ezinbestekoa dela adierazle ekonomiko-finantzarioei buruz eskura dagoen informazioa homogeneoa izatea eta finantza tutoretzaren araudia egoera ekonomiko eta sozial berrira egokituta egotea. Gai horien inguruan, esan behar da udalen egoera finantzarioan hobekuntza nabarmena somatu dela interes tasek eta dirusarrerak, batik bat Udal Finantzaketarako Foru Fondotik datozenek, oso bilakaera ona izan dutelako. Aldiz, eta kontuan izanik 1995ean Gipuzkoako udalen zorpetze maila oso handia izan zela, ez da antzeman behar bezalako jarrera aktiborik zorpetze ratioak areago murriztu daitezten.

El ejercicio de la tutela financiera de los entes locales del Territorio Histórico es competencia de la Diputación Foral y, para el seguimiento y tramitación de las operaciones de crédito a largo plazo, se dispone de una base de datos con información detallada de las mismas. Parte de esta información, concretamente los datos relativos al volumen de deuda y de carga financiera, se suele publicar en un número especial de GIDA. Sin embargo, en este número 14 de la revista de GIDA, además de publicar en la sección de estadísticas, la actualización de los mencionados datos, en la sección de artículos, los técnicos del Departamento de Hacienda y Finanzas, Xabier Gaztelumendi y Sebastián Zurutuza, analizan las características principales de las operaciones de crédito formalizadas por los ayuntamientos guipuzcoanos y la evolución de los principales indicadores que nos miden la solvencia financiera de los mismos. Con carácter previo se ofrecen algunas consideraciones generales sobre las ventajas de disponer de información homogénea de indicadores económico-financieros y de un marco regulador de la tutela financiera adaptado al nuevo contexto económico y social. En relación con estas cuestiones, se observa una mejora notable de la situación financiera de los entes locales, explicada fundamentalmente por la favorable evolución de los tipos de interés y de los ingresos, entre otros, los derivados del Fondo Foral de Financiación Municipal. Por ello, y partiendo de que el nivel de endeudamiento alcanzado por los ayuntamientos guipuzcoanos en 1995 era muy elevado, se percibe que no se ha adoptado, en general, un actitud

Bigarren artikuluan Jose Mari Arruabarrenak, Ogasun eta Finantza Departamentuko teknikaria hau ere, tasa eta prezio publikoen araudian izan diren aldaketak aztertzen ditu. Gai honek udal mailan garrantzi berezia duenez, artikulua edukia guztiz interesgarria gertatzen da

Aldizkarian ohiko sailak ere aurki ditzakegu. Albiste laburren barruan, esaterako, aipatzen da 7/1998 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorrak onartzekoak, ematen duen aukera berria, hau da, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga likidatzeko orduan posiblea izango dela lurturen balioa ezartzea zerga Administrazioak egindako egiaztapenetik abiatuta. Aukera hori guztiz indarrean dago 6/1999 Foru Dekretua, ondasun higiezin hiritarren balio katastrala eta balio egiaztatua merkatuko batez besteko prezioen bitartez zehazteko prozedura onartzen duena, argitaratu denez geroztik. Gainera, epe laburrean laguntza programa bat izango dugu eskura Interneten foru dekretu horrek eskatzen dituen kalkuluak egin ahal izateko. Amaitzeko, eta udalentsat duen garrantzia dela eta, gogorarazi nahi dut orain dela gutxi argia ikusi duela biztanleriaren errolda berriak, 1998ko urtarilaren leian jarria. Honi buruzko informazioa albiste laburretan eta estatistiken sailean jasotzen da

suficientemente activa en la consecución de una reducción mas significativa de los ratios de endeudamiento.

En el segundo de los artículos, José Mari Arruabarrena, técnico del Departamento de Hacienda y Finanzas, analiza los profundos cambios que se han operado en la normativa reguladora de las tasas y precios públicos, por lo que al ser una materia de especial importancia en el ámbito local, el contenido del artículo resulta también de especial interés.

El contenido de la revista se completa con el resto de secciones habituales. En la sección de noticias breves se incluye la que señala la nueva posibilidad que se abrió con la Norma Foral 7/1998, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 1999, para establecer, a los efectos de liquidar el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, el valor del suelo que resulte de la comprobación realizada por la Administración tributaria. Opción que está plenamente operativa con la publicación del Decreto Foral 6/1999, por la que se aprueba el procedimiento para la determinación del valor catastral y el valor comprobado a través del medio de precios medios de mercado de los bienes inmuebles de naturaleza urbana. Además, en breve plazo, estará disponible, a través de internet, un programa de ayuda que facilita la realización de los cálculos que se derivan de la aplicación del mencionado Decreto Foral. Finalmente, y por su importancia para los entes locales, me quiero referir a la reciente publicación del padrón de población a 1 de enero de 1998, circunstancia que se refleja en la sección de noticias breves y en la de estadísticas.

GIPUZKOAKO UDALEN ZORRA:EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA

SEBASTIAN ZURUTUZA MUGICA. Jefe del Servicio de Compromisos Institucionales y Asistencia Municipal

XABIER GAZTELUMENDI LOPETEGI. Jefe de Sección de Cupo y Aportaciones Financieras.

En este artículo se analizan las tendencias principales que se observan en la evolución de los indicadores financieros más importantes referidos a la deuda municipal utilizados para medir la solvencia de los ayuntamientos, y se presentan las características de la operaciones de crédito a largo plazo. Para ello, se utiliza la base de datos con la que cuenta el Departamento de Hacienda y Finanzas en su labor de tutela financiera.

Con carácter previo se ofrecen algunas consideraciones generales sobre las ventajas de disponer de información homogénea de indicadores económico-financieros y de un marco regulador de la tutela financiera adaptado al nuevo contexto económico y social.

En este estudio se concluye que la situación económica y financiera de los ayuntamientos ha mejorado notablemente a lo largo de los últimos años. Sin embargo, dicha mejora pudo haber sido de mayor envergadura si dichos entes, aprovechando el margen de maniobra de una favorable coyuntura económica, hubiesen adoptado políticas más audaces dirigidas a minorar el nivel de deuda. Como excepción a dicho comportamiento general hay que señalar también la existencia de ayuntamientos en que se han puesto en marcha diversas políticas activas de contención del endeudamiento municipal.

1. SARRERA

Kreditu-arriskuaren kalitatea neurtzeko informazioen zehaztasunak eta gardentasunak garrantzia handia dute. Hori dela-eta, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuak, finantza-tutoretza Foru Aldundiaren eskumena izanik, udalek hitzartzen dituzten eragiketa finantzarioen berri ematen du, azkeneko urteetan, GIDA aldizkariaren bitartez. Horrez gain, eta egin behar diren balorazioak eta erkaketak neurrizkoak

izan daitezten, zenbait adierazle ekonomiko eta finantzarioen bilakaera biltzen du, lehen aipatutako aldizkariko zenbaki berezi batean.

Banketxe eta finantza-entitateek, jokabide honen bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak banatutako informazio homogeneoa eskuratzen dute, horrek duen garrantziarekin. Azken finean, kredituaren kostea arriskuarekin lotuta baitago, eta ondorioz zorra kudeatzeko egiten den edozein politikak konfidantza (kreditua) lortu behar duenez, finantza-tutoretzaren

eskumena duenak informazio hori zabaltzerakoan, udalen sinesgarritasun-maila handiagotu egiten da finantza-entitateen aurrean.

Era honetan, finantza-entitateek kreditu-arriskuaren balorazio egokiagoa egin dezakete, eta horrek merkatuan lortu daitezkeen baldintza hoberenak ahalbideratzen dizkie udalei, edo, behinik-behin, informazio horren faltan lortuko zituzketenak baino hobeak izango lirakeela pentsa daiteke.

Ildo honetan, artikulu honen helburua zera litzateke: udalen kaudimena neurtzeko erabiltzen diren adierazle finantzario garrantzitsuenen bilakaeran atzeman daitezkeen joera nagusiak aztertzea eta, baita ere, epe luzeko kreditu-eragiketen ezaugarriak azaltzea. Horretarako, Ogasun eta Finantza Departamentuak finantza-tutoretzarako duen datu basea erabiliko dugu.

Udalen zorpetze prozesuan informazioak garrantzia nabarmena duen bezala, finantza-tutoretzari buruzko araudiak ere erraztu dezake prozesu berbera. Hori dela eta, artikuluaren helburu nagusiarekin hasi aurretik, hurrengo atalean araugintzaren azterketa egingo dugu eta bere egokipenerako landu beharko lirakeen puntu garrantzitsuenen aipamena egingo dugu.

2. FINANTZA-TUTORETZA.

Udalen gaineko finantza-tutoretzak eginkizun ezberdinak hartzen ditu bere barnean (zorpetze eragiketen tramitazioa eta autorizazioa, zerga itundu

eta ez itunduen banaketa, ondare ondasunen salmenten autorizazioa,...). Halere, artikulu honi dagokionez, lehenengo adierak du interesa, eta beraz, kontzeptu honi buruz ari garenean, zorpetze eragiketen autorizazioaz hitz egiten ari gara.

Finantza-tutoretzaren araudia aldatu eta egokitzeko arrazoi ezberdinak daude, eta horiek hiru multzotan sailkatu daitezke:

- a) Epe luzeko kreditu-eragiketak erregulatzen dituzten arauak, gaur egun, oso sakabanatuta daude.
- b) Araudiak aurre egin behar dio errealitate ekonomiko-finantzarioari, eta honek kontutan hartu beharreko zenbait aldaketa jasan ditu azkeneko urteetan.
- c) Erregimen foralekoa ez den lurraldean, azkeneko urteetan aldaketa sakonak gertatu dira bere legetan.

Lehenengo puntuan jasotzen den arrazoiaren garrantziaz jabetzeko kreditu-eragiketarako arautzen dituzten arauak ikustea besterik ez dago:

- Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzaila.
- Otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araua, Erakunde Lokaletako Aurrekontuei buruzkoa.
- 1983 Abenduaren 30eko Erabakia, Gipuzkoako Udalek itundu nahi dituzten kreditu eragiketen finantza-tutoretza gain hartu eta arautzeari buruzkoa.

- 1984ko maiatzaren 8ko Erabakia, kreditu eragiketak ituntzeko udalek izapidetzen dituzten espedienteetako forma eta prozedura alderdiak erregulatzeko arutegiari buruzkoa.
- 1/1996 Foru Araua, otsailaren 5koa, 1996 aurrekontuei buruzkoa.

Bestalde, gaur egungo egoeran premia berri batzuk agertzen dira. Alde batetik, Moneta eta Ekonomia Batasuna gauzatzeko eta sendotzeko Europar Batasuneko Estatuak eta Autonomiek (gure kasuan, baita ere Foru Aldundiek) zenbait konpromezu hartu dituzte azkeneko hamarkadan finantz saneamendu prozesuak bultzatzeko. Udal mailan, prozesu horiek zenbait kasutan gertatu dira baita ere, baina modu indibidualean. Beraz, kontestu honetan, erregulazioak kudeaketa ekonomiko-finanzario zuhurrak bultzatu behar ditu.

Orain arte, zenbaitetan, finantza-tutoretza zentzu negatiboan ulertu da, hau da, udalak kontrolatzeko tresna moduan. Ikuspegi hori murriztegia da, ordea. Izan ere, finantza-tutoretzaren bitartez planifikazio finantzarioaren eta aurrekontuen alorrean kudeaketa-tresna batzuen erabilpena bultzatu behar da, informazio zehatza jarri behar da erabakiak hartuko dituzten udal agenteen eskuetan, edota aholkularitza zuzena eman behar zaie.

Aipatutako bi arrazoi horietatik at, finantza alorrean, kontratazio alorrean eta udalen barneko antolaketan zenbait aldaketa nabarmentzen joan dira, eta honek, neurri batean edo bestean, zenbait egokipen eskatzen ditu kreditu-eragiketen esparruan.

Beraz, gure ustez, nahiko garbi ikusten da hurrengo legealdian finantza-tutoretzari buruzko araudian zenbait egokipen egin beharko lirатеkeela. Eta horretarako, aztertu beharko lirатеkeen puntu nagusiak, beste batzuen artean, ondoko hauek dira:

- Azkeneko bi hamarkadetan udal mailan zenbait eginkizun Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoen bitartez bideratu da. Beraz, zehaztu egin behar da udal sektore publiko osoaren kreditu-arriskua behar bezala neurtzeko zer-nolako integrazio edo kontsolidazioa egin behar den.
- Udal entitateen kaudimen finantzarioa baloratzeko ez da nahikoa zorpetze-maila neurtzea, zeren eta adierazle ezberdinen bilakaerak eta etorkizunean aurrekia sortzeko ahalmena duen ala ez aztertzeak ere garrantzia handia baitute. Hau da, egoera ekonomiko-finanzarioaren diagnostikoa egin behar baita azken finean.
- Gertatu diren zenbait aldaketa direla medio eta esperientziak erakutsitakoaren arabera, aruetan jasotzen diren kontzeptuak hobeto zehaztu behar dira zenbait anbiguitate uxatuz; bestalde, finantza-tutoretzari dagokionez espedienteak tramitatzeko erabiltzen den prozedura behar bezala zehaztu behar da baita ere.

Horrez gain, eta neurri batean orain arte esandakoak kontutan hartuta, Estatu mailan (erregimen amankomuneko lurraldean) kreditu-eragiketarako arautzen dituen erregulazioa erabat aldatu da, lurralde horretako zenbait egoera eta behar berriri erantzuteko asmoz.

Halere, Gipuzkoa mailan erreforma gauzatzeko, lehen aipatutako joera guztiak aztertetik aparte, garrantzizkoa da Gipuzkoako udalen finantza-kaudimen mailaren berezitasunak atzematea. Eta alor honetan, ondoren aztertuko ditugun zorraren sailkapenak eta ratioak lagungarriak gertuko direlakoan gaude.

3. EPE LUZEKO UDAL ZORRAREN EZAUGARRIAK

1998ko abenduaren 31n, Gipuzkoako udalek 407 mailegu zituzten hitzartuta, epe luzera, finantza-entitateekin. Mailegu horiek direla-eta, hitzartutako zenbatekotik 62.245 milioi pezetako saldoa zegoen amortizatu gabe (zor bizia) egun berean. Mailegu horietan erabilitako zenbatekoari erreparatuz, zor biziaren saldoa 55.189 milioi pezetakoa zen. Guzti horren ondorioz, udalek 9.703 milioi pezetako finantza-zamari egin beharko diote aurre 1999an. Guzti horren berri jasotzen da ondoko taulan, udalak biztanleriaren arabera sailkaturik:

ZOR BIZIA 98-12-31-N ETA 1999-KO ZAMAK

BIZTANLEAK	ZOR BIZIA 98-12-31-N		ZAMA
	ERABILIA	HITZARTUA	
<1.000	460.947	559.428	96.967
1.000-5.000	2.749.350	3.069.312	513.023
5.000-10.000	5.530.987	6.266.468	936.347
10.000-20.000	14.315.424	16.299.017	2.517.060
20.000-100.000	9.018.901	12.237.125	2.136.421
>100.000	23.113.370	23.813.370	3.503.130
GUZTIRA	55.188.978	62.244.719	9.702.947

(Mila pezetakotan)

Ondoko ataletan azalduko ditugu udal zor horren ezaugarriak, ekonomiaren bilakaera orokorrarekin izan duen lotura aztertuz, eta, azkenik, hainbat ondorio ateratzen saiatuko gara.

3.1 Finantza-entitateen ara-bera

Ondoko taulan ageri da zein finantza-entitateekin hitzartu dituzten Gipuzkoako udalek 98/12/31n indarrean zeuden 407 maileguak. Bertan, zutabeetan, udalak biztanleen arabera ageri dira sailkaturik.

MAILEGU-KOPURUA BANKUEN ARABERA

	<1.000	1.000- -5.000	5.000- 10.000	10.000- -20.000	20.000- -100.000	>100.000	GUZTIRA
Argentaria			1	1	2		4
BBV	1	3	3	6	3	1	17
BCLE	2	3	17	15	7	6	50
BCH				1		1	2
BG		1	4	4	2		11
BS					1	1	2
Caixa				1		1	2
Caja Laboral	3	7	7	19	9	2	47
Dexia					1	1	2
Elkarkidetza	8	23	11	12	4	1	59
GFA	2					1	3
Kutxa	26	64	37	53	20	7	207
Caja Postal						1	1
GUZTIRA	42	101	80	112	49	23	407

Hurrengo taulan, berriz, 98/12/31n Gipuzkoako udalek zuten zor biziaren banaketa ageri da: lerroetan, finantza-

entitateak; zutabeetan, biztanleen arabera sailkatuta, udal-multzoak.

ZOR BIZIA 98-12-31-N, BANKUEN ARABERA

	<1.000	1.000- -5.000	5.000- 10.000	10.000- -20.000	20.000- -100.000	>100.000	GUZTIRA
Argentaria			100.000	848.828	1.332.602		2.281.430
BBV	20.000	83.387	144.912	855.840	770.315	235.134	2.109.588
BCLE	23.591	40.017	1.367.867	2.237.805	1.223.075	4.409.141	9.301.495
BCH				53.333		73.216	126.549
BG		166.070	585.863	428.142	539.952		1.720.028
BS					240.167	392.308	632.475
Caixa				223.302		1.379.094	1.602.396
Caja Laboral	19.629	257.553	315.998	1.363.742	1.557.901	559.142	4.073.965
Dexia					372.752	1.400.000	1.772.752
Elkarkidetza	3.255	33.437	46.744	129.706	138.993	216.073	568.207
GFA	22.113					540.000	562.113
Kutxa	470.840	2.488.847	3.705.084	10.158.318	6.061.368	14.201.339	37.085.795
Caja Postal						407.925	407.925
GUZTIRA	559.428	3.069.312	6.266.468	16.299.017	12.237.125	23.813.370	62.244.719

Aurreko tauletan nabari geratzen da Gipuzkoako udal zorraren hainbat ezaugarri:

- Finantza-entitate bakar-batek, Kutxak, merkatuaren % 60 bereganatu du. Nagusitasun hori % 82ra iristen da 5.000 biztanletik beherako udaletan.

Gertaera horren atzean hainbat faktore egon liteke: batetik, nabaria da finantza-entitate honek Gipuzkoan duen errotze-maila handiagoa; bestetik, kasu askotan mailegu baten negoziazioa esparru orokor baten barruan egiten da eta bertan Kutxaren gizarte-ekintzek badute beren eragina azken erabakian.

- Banka pribatuak oso agerpen urria du udal zorraren merkatuan. Hala ere, azken urteetan jokaera hori aldatzen ari da, entitate hauek arrisku mugatuko negozio-esparru berriztat hartu dutelako, banka ofizialaren desagerpenak lehia handitu duen garai honetan.

Orain dela gutxi arte izaera ofizial edo publikoa izan duen bankaren maileguak estatuko beste udaletan baino agerpen txikiagoa dute Gipuzkoan.

3.2 Maileguen batez besteko epemugen eta interes-tasen arabera

1998ko abenduaren 31n indarrean zegoen zorraren batez besteko kitatze-epea, amortizazio-gabezialdia barne, bederatzi urte baino zertxobait

gehiagokoa da, eta alde handiegirik ez dago udal-multzo batetik bestera. Beraz, mailegu horiek batez beste 15,7 urtetara hitzartu zirela kontuan hartuz, esan dezakegu udal zorra ez dela oso zaharra.

Finantza-entitateek, batez beste, % 3,81eko interes-tasa aplikatzen diete Gipuzkoako udalekin hitzartutako epe luzeko maileguei. Tasa hori oso baxutzat jo behar da, eta bere atzetik Europako Batasuneko bateratze-irizpideek bultzatzen duten moneta-politika dago. Datuei erreparaturik, garbi ikusten da ez dagoela interes-tasetan ezberdintasun handiegirik udal-multzo batetik bestera biztanle-kopuruaren arabera.

Interes-tasak aldakorrak diren maileguetan, batez beste, 0,33ko diferentziala aplikatzen zaio erreferentziako tasari. Bestalde, datuak ikusirik, ez da erlazio estuegirik ageri diferentzial horren eta udalaren biztanleriaren artean. Beraz, diferentzialak erabakitzerakoan, ez dirudi udal handienek indar handiagoa dutenik negoziazio-prozesuan.

Horren guztiaren berri jaso dugu hurrengo taulan.

MAILEGUEN EPEMUGA ETA INTERES-TASAK

BIZTANLEAK	EPEMUGA	INT.TASA	DIFERENTZ.
<1.000	2007/06/07	3,75	0,41
1.000-5.000	2007/11/02	3,91	0,43
5.000-10.000	2008/08/11	3,92	0,33
10.000-20.000	2008/07/12	3,78	0,31
20.000-100.000	2007/10/16	3,88	0,27
>100.000	2008/02/15	3,74	0,35
GUZTIRA	2008/03/11	3,81	0,33

Ondoko taulan zor bizia ageri da, udal-multzoen eta interes-tasaren arabera sailkatuta. Berrito ere, aurretik esandakoa frogaturik gelditzen da. Izan ere, % 4tik gorako interes-tasa duten maileguengatik gaur egun dagoen zor bizia ez da % 9ra ere iristen.

Aipagarria da, hala ere, (garrantzi kualitatiboagatik, kuantitatiboagatik baino

gehiago) 1.000 biztanletik beherako udalek badituztela oraindik ere %10tik gorako interes-tasak aplikatzen zaizkien maileguak.

Beste muturrean, badira hiru udal Foru Aldundiaren eskutik, aspaldian eta egoera berezietan, interesik gabeko maileguak eskuratu zituztenak.

ZOR BIZIA, INTERES-TASAREN ARABERA

	<1.000	1.000- -5.000	5.000- 10.000	10.000- -20.000	20.000- -100.000	>100.000	GUZTIRA
0%	22.113					540.000	562.113
>=%3 eta <4	449.921	2.551.109	5.649.874	15.650.986	10.116.225	21.923.670	56.341.786
>=%4 eta <5	76.049	472.524	282.791	306.495	924.672	725.702	2.788.232
>=%5 eta <6	6.705	7.769	11.630	151.128	1.057.237	407.925	1.642.394
>=%6 eta <7	3.255	33.437	322.172	190.408	138.993	216.073	904.338
>=%7 eta <8		4.472					4.472
>=%8 eta <9							
>=%9 eta <10							
>=%10 eta <11	166						166
>=%11 eta <12							
>=%12 eta <13	562						562
>=%13 eta <14	437						437
>=%14 eta <15	219						219
GUZTIRA	559.428	3.069.312	6.266.468	16.299.017	12.237.125	23.813.370	62.244.719

(Mila pezetakotan)

3.3 Mailegu-kopurua, interes-tasen arabera

Gaur egun indarrean dauden ia mailegu guztiak (zor biziaren % 96) interes-tasa aldakorrekoak dira. Bertatik bi ondorio atera litezke:

- Ia Gipuzkoako udal guztiak momenturen batean birnegoziatu

dituztela beren maileguen ezaugarriak finantza-entitateekin, gaur eguneko merkatuaren egoera ezin hobeari etekinik handiena atera ahal izateko.

- Egoera horrek baduela bere arrisku-puntua ere, merkatuko interes-tasak berrito ere gora egin dezakeen neurrian (ikus 5.1.2. atala).

Artikuluak

MAILEGU-KOPURUA, INTERES-TASAREN ARABERA

BIZTANLEAK	ALDAK.	FINKOA	GUZTIRA
<1.000	28	14	42
1.000-5.000	76	25	101
5.000-10.000	68	12	80
10.000-20.000	98	14	112
20.000-100.000	42	7	49
>100.000	19	4	23
GUZTIRA	331	76	407

ZOR BIZIA 98/12/31-N, INTERES-TASAREN ARABERA

BIZTANLEAK	ALDAK.	FINKOA	GUZTIRA
<1.000	532.675	26.752	559.428
1.000-5.000	3.031.154	38.158	3.069.312
5.000-10.000	5.944.295	322.172	6.266.468
10.000-20.000	16.168.659	130.358	16.299.017
20.000-100.000	11.063.895	1.173.230	12.237.125
>100.000	23.048.879	764.491	23.813.370
GUZTIRA	59.789.557	2.455.162	62.244.719

3.4 Urteko ordainketa-kopuruaren arabera

Gipuzkoako udalek hitzartutako ia mailegu guztietan (zor biziaren % 94n)

hiru hilabetetik behin egiten da amortizazioaren ordainketa. Ezaugarri hori udal-multzo guzti-guztietan errepikatzen da ondoko tauletan ikusten den bezala.

MAILEGU-KOPURUA, URTEKO ORDAINKETEN ARABERA

BIZTANLEAK	URTEKO ORDAINKETA-KOPURUA				GUZTIRA
	1	2	4	12	
<1.000	9	4	29		42
1.000-5.000	23	2	74	2	101
5.000-10.000	11	1	66	2	80
10.000-20.000	13	4	95		112
20.000-100.000	4	3	42		49
>100.000	2	1	20		23
GUZTIRA	62	15	326	4	407

ZOR BIZIA 98-12-31-N, URTEKO ORDAINKETEN ARABERA

BIZTANLEAK	URTEKO ORDAINKETA-KOPURUA				GUZTIRA
	1	2	4	12	
<1.000	3.884	13.488	542.055		559.428
1.000-5.000	33.437	14.634	2.994.870	26.370	3.069.312
5.000-10.000	46.744	11.630	5.794.231	413.863	6.266.468
10.000-20.000	978.534	45.102	15.275.381		16.299.017
20.000-100.000	138.993	397.387	11.700.746		12.237.125
>100.000	1.616.073	407.925	21.789.372		23.813.370
GUZTIRA	2.817.665	890.166	58.096.655	440.233	62.244.719

(Mila pezetakotan)

4. UDAL ZORRARI BURUZKO ADIERAZLEAK¹**4.1 Zorpetze-maila**

Zorpetze-maila finantza-zamen eta sarrera arrunten arteko erlazioaren bitartez zehazten da. Adierazle hau erabiltzen da finantza-tutoretzaren barruan mailegu berriei baimena emateko irizpide nagusi bezala.

Finantza-zamen barruan, maileguz mailegu, interesen eta amortizazioaren ordainketari dagokion zenbatekoa jasotzen da. Adierazlea osatzeko ordainketa teoriko bat kalkulatzeko, ondoko hipotesien arabera:

- Amortizazioa sistema frantsesaren arabera egiten da, hau da, maileguak dirauen bitartean urtero-urtero interes eta amortizazioaren batuketa berdina da.

- Amortizazio gabeko epealdiak (karentzia-epealdiak) ez dira konputatzen.

Sarrera arrunten artean aurreko urteko aurrekontu-likidazioaren 1, 2, 3, 4 eta 5 kapituluetan likidatutako eskubideak jasotzen dira.

Beraz, zorpetze mailaren bitartez honakoa adierazten dugu: zenbatekoa den sarrera arrunten zatia (ehunekotan), finantza-zamaren ordainketei aurre egiteko lotua dagoena. Adierazle honetan ez da, beraz, udalak aurrezkoa sortzeko duen ahalmena aintzakotzat hartzen. Hortaz, adierazle partzial hau beste zenbaitekin osatu beharko da azterketa ekonomikoak egitean.

Ondoko taulan jasotzen da finantza-zamak izan duen bilakaera 1992 eta 1998 urteen artean, udal multzo bakoitzeko. Orokorrean, magnitude honek goranzko joera izan du 1996urtera arte, eta handik aurrera beheruntz egin du nabarmen.

FINANTZA-ZAMAK (mila pezetakotan)

BIZTANLEAK	1998	1997	1996	1995	1994	1993	1992
<1.000	96.967	95.904	104.565	119.006	121.338	109.686	72.760
1.000-5.000	513.023	506.912	589.960	530.170	492.152	500.135	430.878
5.000-10.000	936.347	929.645	1.082.463	1.038.044	1.014.903	1.019.740	921.362
10.000-20.000	2.517.060	2.674.097	3.265.661	2.996.299	2.988.002	3.262.398	2.944.808
20.000-100.000	2.136.421	1.793.996	2.283.623	2.323.552	1.976.054	2.213.443	1.749.967
>100.000	3.503.130	3.715.843	4.383.079	3.970.607	3.452.260	3.420.956	3.404.356
GUZTIRA	9.702.947	9.716.398	11.709.352	10.977.679	10.044.709	10.526.358	9.524.132

Ondoko taulan, berriz, zorpetze-mailaren bilakaera ikus daiteke. Bilakaera honek ezaugarri berbera izan du udal-multzoz guztietan: 1995 edota 1996 urteetara arte ez da aldaketa handiegirik gertatu, bainan handik aurrera beherakada ikusgarria gertatu da.

Azken urteetako beherakada udal handienetan gertatu da, batez ere. Gogoan izan behar da beraiek zutela behera egiteko marjen gehiena ere, udal txikiaren zorpetze-maila betidanik izan delako askoz apalagoa. Biztanleria eta zorpetze-mailaren arteko lotura hori nabaria da

udal-multzoz guztietarako eta urte guztietarako.

Aipagarria da 1995ean % 20tik gorako zorpetze-maila zuten hainbat udalek bereziki izan duten beherako bilakaera, hala nola, Elgetak, Urretxuk, Oñatik, Elgoibarrek, Andoainek, Bergarak edota Donostiak. Era berean, aipatu beharra dago Zumarraga eta Iruraren kasuak: biei mailegu bana hitzartzeko baimena eman zieten Batzar Nagusiek, aparteko egoera bati aurre egiteko, eta gaur egun, saneatze-plan berezi baten barruan, % 14ko zorpetze-mailara jaitsi dira biak.

ZORPETZE-MAILA

BIZTANLEAK	1998	1997	1996	1995	1994	1993	1992
<1.000	4,86	4,99	6,07	7,44	7,47	5,82	5,08
1.000-5.000	8,24	8,71	11,52	10,99	10,50	10,04	10,89
5.000-10.000	10,92	12,40	15,44	16,57	17,25	16,71	17,86
10.000-20.000	10,46	12,16	16,21	16,40	17,27	18,81	20,41
20.000-100.000	13,38	11,78	17,05	18,54	16,53	18,68	16,33
>100.000	15,27	17,59	22,51	21,98	19,12	19,94	20,98
GUZTIRA	12,16	13,20	17,51	17,83	16,88	17,74	18,34

4.2 Zor bizia

Zor biziaren adierazlea egun jakin batean dagoen zor biziaren eta sarrera

arrunten arteko erlazioaren bitartez (ehunekotan) zehazten da. Udal batek % 100eko zor bizia izateak, beraz, honakoa adieraziko luke: urteko sarrera arrunt

Artikuluak

guztiak zorra amortizatzeraz bideratuz gero urte bete beharko lukeela guztia kitatu arte; % 200ek bi urte behar lituzkeela;...

Zorpetze-mailarekin gertatzen zen bezala, adierazle honetan ere ez dugu kontrastatzen zor bizia udalak aurrezki arrunta sortzeko duen ahalmenarekin. Beraz, adierazle partzial hau ere osatu beharra dago finantza-tutoretzaren esparru murrizta gainditzeko duen edozein azterketa egitean.

Zor biziari dagokionez, bi aukera ditugu: bata, maileguz mailegu, hitzartutako zenbatekotik amortizatu gabe

dagoena konputatzea; eta bestea, erabilitako zenbatekotik amortizatu gabe dagoena konputatzea. Guk lehenengo aukeraren alde egin dugu adierazlea osatzerakoan.

Zor biziak, balore absolutotan, izan duen bilakaera ikusgarria da: 1991 eta 1998 urteen artean, batekoz beste, % 71 hazi da. Hazkunde hori, dena dela, 1991 eta 1995 urteen artean gertatu da, handik aurrera udalek eutsi egin diotelako beren saldoari edota, zenbait kasutan, gutxitu egin dutelako.

ZOR BIZIAREN BILAKAERA (mila pezetakotan)

BIZTANLEAK	98-12-31	97-12-31	96-12-31	95-12-31	94-12-31	93-12-31	92-12-31	91-12-31
<1.000	559.428	523.578	444.286	434.042	426.535	364.269	272.987	328.332
1.000-5.000	3.069.312	3.041.063	2.825.871	2.677.364	2.347.509	2.081.949	1.922.686	1.800.680
5.000-10.000	6.266.468	6.113.185	5.497.324	5.436.832	5.151.469	4.580.141	3.978.230	3.652.247
10.000-20.000	16.299.017	17.346.338	17.383.071	16.571.462	15.023.344	14.282.921	12.385.812	10.919.379
20.000-100.000	12.237.125	12.132.175	10.872.436	11.589.421	9.886.111	9.931.788	7.090.072	6.729.780
>100.000	23.813.370	26.355.359	25.609.575	25.439.775	21.193.190	19.180.593	16.892.206	12.900.537
GUZTIRA	62.244.719	65.511.698	62.632.562	62.148.896	54.028.157	50.421.662	42.541.992	36.330.954

Sarrera arrunten artean aurreko urteko aurrekontu-likidazioaren 1, 2, 3, 4 eta 5. kapituluetan likidatutako eskubideak konputatzen dira.

Ondorioz zehaztutako zor biziaren adierazlearen bilakaera ondoko taulan jaso dugu:

ZOR BIZIAREN BILAKAERA (sarrera arrunten ehunekotan)

BIZTANLEAK	98-12-31	97-12-31	96-12-31	95-12-31	94-12-31	93-12-31	92-12-31	91-12-31
<1.000	28,03	27,23	25,80	27,14	26,27	19,32	19,07	25,42
1.000-5.000	49,33	52,25	55,18	55,49	50,10	41,80	48,57	51,74
5.000-10.000	73,08	81,55	78,43	86,80	87,54	75,05	77,11	78,57
10.000-20.000	67,73	78,86	86,31	90,71	86,82	82,34	85,83	82,81
20.000-100.000	76,64	79,67	81,17	92,47	82,72	83,80	66,18	69,15
>100.000	103,78	124,79	131,50	140,83	117,38	111,81	104,12	99,52
GUZTIRA	78,03	89,03	96,37	100,97	90,80	85,00	81,94	80,20

Bertan ikus daitekeenez, gaur egungo zor bizia, termino erlatiboetan, 1991n zegoena baino zerbait txikiagoa da,

batez beste. Gutxitze hori, hala ere, 1995etik aurrera gertatu da, ordurarte urtez urte hazi egin zelako adierazlearen

balioa. Bilakaera honek, ordea, badu salbuespen kezkarri bat: 1.000 biztanle arteko udal multzoa. Bertan zor biziak ez du beheranzko joerarik agertzen, eta, gainera, azken bi urteetan bi puntutik gorako igoera izan du, sarrera arruntak % 25 hazi arren.

Badira zenbait kasu aipagarri, zor bizia azken hiru urte hauetan 50 puntutik gora gutxitu dutelako, hala nola, Urretxuk, Elgoibarrek, Aretxabaleak edota Aizarnazabalek.

5. UDAL ZORRAREN ANALISIA

5.1 Zorpetze-maila

Zorpetze-mailaren adierazlea erabili ohi da finantza-tutoretzaren barruan irizpide nagusitzat. Ratio horrek hainbat faktoreren eragina jasotzen du, ordea, eta horietako asko kanpo-faktoreak dira. Hori dela-eta, zorpetzeari buruzko udal politika jakin bat ez da bat-batean islatzen adierazle horretan. Edota, beste ikuspegitik, finantza-zamaren bilakaeraren arrazoiak ez dira udalaren kudeaketan bakarrik bilatu behar.

Gogora dezagun, ezer baino lehen, zorpetze-maila bi magnituderen arteko erlazioa dela: finantza-zamak eta sarrera arruntak. Beraz, zorpetze-maila gutxitu liteke bai finantza-zamak gutxitu direlako, bai sarrera arruntak handitu direlako.

Gure kasuan, zorpetze-maila 6 puntu gutxitu da 1992 eta 1998 urteen artean. Epe horretan, ordea, bialdi ezberdin soma litezke: 1992tik 1995era bata, 1995etik 1998ra bestea.

5.1.1 1992tik 1995 arteko epea

Epe honetan, zorpetze-mailaren aldaketa oso-oso txikia da: 51 ehunen. Finantza zamak, ordea, %15hazi ziren bi urte horien artean, besteak beste, udalek epe horretan hitzartu zituzten mailegu berrien ondorioz. Gogora dezagun zor bizia % 71 hazi zela 91/12/31 eta 95/12/31 artean.

Sarrera arruntak, ordea, % 19 hazi ziren 1991 eta 1994 artean², eta horiek eutsi zioten zorpetze-mailari. Hazkunde honen atzean ekonomiak orokorrean izan zuena dago, BPG % 18 igo baitzen.

Beraz, epe honetan, nahiz eta finantza-zamak hazi, kanpo-faktore baten bilakaerak eutsi zion zorpetze-mailari.

5.1.2 1995etik 1998 arteko epea

Bigarren aldi honetan, udalen zorpetze-maila % 17,83tik % 12,16ra pasa da, hau da, ia sei puntuko jaitsiera izan du hiru urtetan.

Epe honen ezaugarri nagusia interes-tasen beherakada izan da, Europako Batasuneko bateratze-irizpideek behartuta. Hala, udalek hitzartutako maileguen batez besteko interes-tasa % 10etik % 3,8ra pasa da. Erreferentzia gisara esan behar da, gaurko egoera 1995ekoarekin erkatu nahi bada, 1998ko finantza-zamak 2.214 milioi pezeta gehiago izango zirela kanpo-faktore hori gertatu ezean.

Baina bada beste faktore bat, udal kontrolatik kanpokoa gehien batean hau ere, zorpetze-maila beheruntz bultzatu duena: sarrera arruntan goranzko joera ikusgarria. Izan ere, 1994 eta 1997 urteen artean sarrera horiek % 30 hazi dira,

ekonomiak orokorrean egin duenaren gaintetik (BPG nominala % 25 hazi da). Udal Finantzaketarako Foru Fondoak, udalen sarrera arruntan osagai nagusia, % 36 hazi da³ epe berean.

Beraz, udalen zorpetze-mailaren azken hiru urte hauetako beherakada ikusgarriaren atzetik bi arrazoi daude, biak ere, udal kontroletik kanpokoak: interes-tasen-gutxitzea eta UFFF handitzea.

5.2 Udal zorraren kudeaketa

Aurreko atalean azaldutakoak ez du esan nahi, ordea, udalak saiatu ez direnik zorrari aurre egiten. Kanpofaktoreek lagundu egin duten arren, udalek ere martxan jarri dute hainbat politika udal zorra ez zedin itogarria izan etorkizunerako.

Batetik, ia udal guztiek berrikusi dituzte beren maileguen kontratuak, etenik gabe beheruntz jotzen zuten interes-tasetara erreferentziatuz.

Bestalde, udal zorraren presioaren maila kezkarriaz jabeturik, badira zuhurtasunez jokatu duten udalak, zorra gutxitzera bideratuz bai ekonomiaren bilakaerak liberatutako baliabideak, bai norbere ibilgetuarekin egindako eragiketetako dirusarrerak, bai UFFFren likidazio positiboak.

Hala eta guztiz, esan beharra dago, salbuespenak-salbuespen, udalek ez dutela bete-betean aprobetxatu ekonomiaren bilakaerak eskaintako aukera paregabea. Hala, hainbat kanpofaktore aldeko izan badituzte ere, udalek ez dute lortu gaur egungo zor bizia, balio absolututan, 1995ean zuen mailatik behera jaisterik.

6. LABURPEN GISARA

Informazioaren zehaztasuna eta gardentasuna ezinbestekoak dira kreditu-arriskua neurtzeko garaian. Ezaugarri horiek dituen informazioa eskura izateak eragina du finantza-enitateek maileguei aplikatu behar zaien arrisku-gainsaria zehazterakoan. Premia horri erantzun nahi dio GIDA aldizkari honek daraman politikak.

Udalen jardura ekonomikoaren inguruan hainbat aldaketa gertatu da azken urte hauetan, bai Europako Batasunaren eraikuntzari lotuak, bai Estatuko legerian, bai inguruko egoera ekonomiko orokorrean. Beharrezko egiten da, beraz, Gipuzkoako udalen gaineko finantza-tutoretzari buruzko araudia ere egokitu dadin aldaketa horietara.

Gipuzkoako udal zorraren merkatuan guztiz nabarmena da Kutxaren nagusitasuna. Azken urte hauetan, ordea, banka pribatua indarrez sartzen ari da orain arte arrotz izan zaion merkatu honetan.

Azken urte hauetan udalen zorpetze-mailan beheranzko joera ikusgarria gertatu da. Horren atzetik bi arrazoi nagusi daude, biak ere udal kontroletik kanpokoak neurririk handiengan: interes-tasen etengabeko beherakada eta UFFFren ezohiko igoera.

Udalen egoera ekonomiko eta finantzarioa asko hobetu da azken urteotan. Hala ere, hobekuntza hori handiagoa izan zitekeen udalek, ekonomiaren bilakaera positiboa aprobetxatuz, zorra gutxitzeko politika

¹ Zerga bereziak itundu ondoren izandako igoera kontuan hartu gabe

ausartagoei ekin izan baliete. Jokabide orokor honen salbuespen gisara, hala ere, badira hainbat udal zorrari aurre egiteko politika aktiboak martxan ipini dituztenak.



LA MODIFICACIÓN DE LA NORMATIVA REGULADORA DE LAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS. EL DECRETO FORAL 73/1998, DE 15 DE SEPTIEMBRE.

JOSE MARI ARRUABARRENA BEREZIARTUA. Técnico de la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

Tasei eta prezio publikoei buruzko Gipuzkoako zerga araudian aldaketa handia gertatu da irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (1998/9/18) argitaratzearekin.

Aipatu foru dekretua dela medio zuzenbide arau hauek aldatu dira: Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra, Foru Sektore Publikoaren tasei eta prezio publikoei buruzko 2/1990 Foru Araua eta Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko Foru Araua.

Aldaketaren gaia da tasei eta prezio publikoei buruzko erregulazio berria, Auzitegi Konstituzionalaren 185/1995 Sententziaren aginduak betetzen dituen. Aipatu sententziak prezio publikoaren funtsa berari ere eragin zion, Tasei eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen zenbait xedapenen inkonstituzionalitatea aitortu baitzuen.

73/1998 Foru Dekretua argitaratzearekin, aurreko araudian jasotako tasari eta prezio publikoari buruzko kontzeptuak aldatu dira. Gainera ere, erregulazio berriak udaletako tasei eta prezio publikoei ere eragin die: Auzitegi Konstituzionalaren aldarrikapenek eragin gabe bazeuden ere, praktikan izaera eta auzi berberak zegozkien.

Erregulazio berria tasaren jatorrizko kontzeptura itzuli da, kontzeptu horretan beren egituran koaktibitate izaera duten dirusarrera publiko guztiak jasotzeko asmoz. Prezio publikoaren kontzeptura bilduta geratu dira benetako konkurrentzia erregimenean zerbitzu edo jarduerak ematen diren kasuak bakarrik.

Bestalde, prezio publikotzat hartu dira zuzenbide publikoaren erregimenean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, sektore pribatuak ere zerbitzu edo jarduera horiek eskeintzen dituelarik, administratuek borondatez eskatzen dituztenean.

INTRODUCCIÓN

La normativa reguladora de las tasas y precios públicos ha sufrido recientemente un profundo cambio. En el

ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa dicho cambio ha venido motivado por la publicación del Decreto Foral 73/1998, de 15 de septiembre, por el que se adapta la normativa tributaria del

Territorio Histórico de Gipuzkoa a determinados preceptos de carácter tributario de la Ley 25/1998, de 13 de julio, de modificación del Régimen Legal de las Tasas Estatales y Locales y de Reordenación de las Prestaciones Patrimoniales de Carácter Público. Por su parte, en el ámbito del Estado la modificación ha venido motivada por la publicación de la citada Ley 25/1998, de 13 de julio; en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia por la publicación de la Norma Foral 8/1998, de 8 de octubre, y en el ámbito del Territorio Histórico de Alava con la Norma Foral 33/1998, de 23 de noviembre.

Centrándonos en la normativa guipuzcoana, hay que resaltar que el Decreto Foral 73/1998, de 15 de septiembre, ha modificado la Norma Foral 1/1985, de 31 de enero, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos, así como la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

El motivo principal de la modificación ha consistido en la necesidad de dar una nueva regulación referente a las tasas y precios públicos que cumpla los pronunciamientos de la importantísima Sentencia del Tribunal Constitucional 185/1995, de 14 de diciembre, sentencia ésta que afectó a la esencia misma del concepto precio público, declarando la inconstitucionalidad de determinados preceptos de la Ley 8/1989, de 13 de abril, de Tasas y Precios Públicos.

La normativa anteriormente vigente estaba constituida en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa (en adelante THG) por la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos y por la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mientras que en el Estado, estaba constituida por la Ley 8/1989, de 13 de abril, de tasas y precios públicos y por la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

La principal característica de la normativa citada estaba constituida por el hecho de que los citados textos normativos dieron origen a un nuevo concepto; el concepto “precio público” que se desgajó del tronco común de las tasas y que quedó con la citada normativa fuera del ámbito tributario.

